



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 21a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubi-deei eta betebeharrei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, mendekotasunaren arloko gizarte zerbitzuen ereduari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan negoziazio kolektiboaren mahai sektoriala zahar-etxeen sektorean ordezkaturako sindikatu guztiekin eratzea. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu zentro berezien erregistroa sor dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da Nafarroako Parlamentua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina, Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen die Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (14. or.).

—Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (14. or.).

—Galdera, Mugapeko Plan Hidrologikoaren baitan hartutako erabakia betetzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (15. or.).

—Galdera, osasunaren prebentzioari eta sustapenari buruzko programetarako kontusailek 2010ean murrizketarik izanen duten jakiteko, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (16. or.).

—Galdera, gure erkidegoan eperren kopurua jaitsi izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Esako Sierra Nevada, S.L. arrain-haztegiko gaizkataren hazkuntzari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).

—Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren baitan turismoaren sektorea sustatze eta dibertsifikatze aldera eginiko jarduketari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).

—Galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

—Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (20. or.).

—Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean protokolo teknikari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdia. Gainditu duten izangaien zerrenda (34. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2010eko martxoaren 18ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko ekainaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, mendekotasunaren arloko gizarte zerbitzuen ereduari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko jabeldura, mendekotasunaren arloko gizarte zerbitzuen ereduari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legeak neurri handi batean aldatu zuen gizarte-sistema. Hala, egungo gizarteak urrats handi bat egin du eskubide horiek sendotzeko eta norberaren zaintzaren dinamika aldatzeko.

Baina halako urrats batek tresna asko behar ditu indartzeko, itxaropenei modu egokian erantzuteko eta, batez ere, eskubide horiek errotzeko.

Beraz, gai horrek, gizartean ez ezik, eragin handia du, baita ere, administrazioan eta politikan, eta horrek funtsezko aldaketa dakar administrazio publikoetako gizarte-, ekonomia-, lan- eta politika-egiturentzat. Hori dela eta, etengabeko eztabaida beharrezkoa eta aberasgarria da.

Duela gutxi, Nafarroan, Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioak, Nafarroako Gobernuak eta CCOO eta UGT sindikatuek hitzarmen bat sinatu dute mendekotasunaren arloko gizarte-zerbitzuen eredu berriari buruz. Nafarroa Bai ez dator bat hitzarmen horren alderdi batzuekin, baina egia da Mendekotasunari buruzko Legearen garapenean gertaturiko zenbait arazo detektatzen dituela.

Gure ustez, garrantzitsua da politika orokorrari buruz eztabaidatzen jarraitzea Mendekotasunari buruzko Legearen garapenari dagokionez.

Hori dela eta, parlamentu-talde honek jabeldura hau aurkeztu dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariari, adieraz eta argitu dezan zer neurri zehatz hartuko diren mendekotasunaren arloko gizarte-zerbitzuen ereduaren ezarritakoa gauzatzeko.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan negoziazio kolektiboaren mahai sektoriala zahar-etxeen sektorean ordezkaturako sindikatu guztiekin eratzea.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita susta dezan negoziazio kolektiboaren mahai sektoriala zahar-etxeen sektorean ordezkaturako sindikatu guztiekin eratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gizarte zerbitzuen sektorea nabarmen hedatu da azken urteotan. Halatan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen eta Mendekotasunaren Legearen bidez gizarte-babeseko sistema sendotu nahi izan da.

Nafarroa Bairen ustez, gizarte zerbitzuei buruzko azterketa eta analisisia mugatu dira baliabideak identifikatzera, gastuak kuantifikatzera eta finantzaketa sistemetara, baina, oro har, ez da hausnarketarik egin sortutako enpleguaren kalitateari

buruz. Eta hori hala izan da, nahiz eta lotura garbia dagoen enpleguaren kalitatearen eta zerbitzuen kalitatearen artean.

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak berak ere kontuan hartu behar izan zuen beharrezkoa den enplegu-kalitatea lortzeko neurrien sustapena, bai eta neurri horiek abian jartzeko egutegia prestatu ere; hala, bai 1.1.5.b neurrian bai 1.5 neurrian horri buruzko jarduketak jasotzen dira.

Horrekin lotuta, Kohesio Sozialerako Mahaiak mendekotasunaren arloko gizarte-zerbitzuen ereduari buruzko hartutako erabakian aitortzen da beharrezkoa dela lansari-baldintzen alorrean aurrera egitea, negoziazio kolektibotik abiatuta.

Gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitatearen afera konpontzeko dugun arazoa da eta, hori dela eta, uste dugu zerbait egin behar dela eta lehenbailehen egin behar dela, aldeak negoziatze-
ra eser daitezen eta sektoreak beharrezkoa duen eta espero duen akordioa bultzatu dezaten.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean susta dezan negoziazio kolektiboaren mahai sektoriala eratzea, zahar-etxeen sektorean ordezkaturako sindikatu guztiekin eta enpresen aldetiko ordezkariekin, alor horretarako probintzia arloko hitzarmen marko bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtero neurri sorta bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, jabetza eta kudeaketa publikoko egoitzetan dagoen behin-behinekotasun tasa handiari aurre egite aldera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babe-

sean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren aplikazioaren bidez aurrerapauso handia eman da ikasleek oinarritzko hezkuntzaren etapan doako irakaskuntza jasotzeko duten eskubidearen alorrean.

Hala ere, programa hori abian jarri aurretik eskola-materiala erosteko bekak edo laguntzak jasotzen zituzten ikasleak kaltetuak izan dira, lehen dirulaguntzak estaltzen zuen material suntsikorra haiek ordaindu behar baitute orain.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beka-sistema bat ezar dezan eskola-material suntsikorra erosten laguntzeko testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren onuradun diren ikasleentzat, haien familiak zailtasun ekonomikoak dituzten kasuetarako.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea eta hura garatzen duten foru dekretuak onetsi zirenetik, hiru araudi izan dira programa horren finantzaketarako gehieneko zenbatekoa ezartzeko, bat ikasturte bakoitzeko.

Hiru arau horietako bakoitzak modulu eta finantzaketa-baldintza desberdinak ezarri ditu, eta horrek arazoak sortu ditu programa ikastetxeetan garatzerakoan.

Zuzkidura ekonomikoa txikiagoa da curriculum-material motaren arabera. Kopuru txikiagoa ematen da ikastetxeak erabakitzen badu testu-liburuen ordean erabilera arrunteko materialak edo irakasleak prestaturiko materialak erabiltzea. Horrek, printzipioz, ikastetxeen autonomia mugatzen du.

Urriaren 15eko 166/2009 Foru Aginduaren bidez, mugatu egiten da ikasle bakoitzeko dirulaguntza aukeratutako testu-liburuen arabera. Horrek 14.1 artikulua edukia eta zentzua hutsaldu egiten du; izan ere, artikulua horretan ondokoa esaten da: "Ikastetxeak aukeratu dituen testu liburuaren zenbatekoa txartelean agertzen dena baino txikiagoa bada, ikastetxeek erabilera arrunteko beste material didaktikoren bat erosteko erabili ahal izanen dute gerakina..."

Lehen Hezkuntzan, zenbateko hori ez da nahikoa ikasle guztientzat komunak diren ikasgaietako curriculum-material edo testu-liburu guztiak finantzatzeko, eta, horietaz gain, kontuan hartu behar dira euskararako, matematika tailerrarako, hizkuntza tailerrarako eta erlijiorako material edo liburuak. Horrek ikastetxe asko behartu ditu curriculum-materialen erabilera mugatzera.

Hezkuntza premia berezietako ikasleak ez dira zenbatzen beren erreferentziazko ikasturteko testu-liburuaren doakotasunerako eskubidea duten ikasle gisa, beste eskola-ordutegiaren zati handiena ikasgela orokorrean igarotzen badute ere.

Ez da kontuan hartzen ikasturte bakoitzeko ikasle kopuru erreala. Ikastetxeek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dute programan parte hartzeko eskubide duten ikasleen zerrenda, baina ikastetxe askotako matrikulazioak gora egiten du nabarmen irailan. Gainera, ikasturte guztian zehar ikasle berriak onartzen dira.

Ikasturte bakoitzerako aldaketek eta kudeaketa-prozeduraren zailtasunak ikastetxeak behartzen dituzte arauan ezarritako baldintzetara egokitzera, irakasle taldeek beren hezkuntza proiektua garatzeko egokienak diren curriculum-materialak eta/edo testu-liburuak aukeratzeko duten autonomiaren kaltetan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du testu-liburuei buruzko erregelamendua alda dezan, ondoko helburuekin:

– Ikastetxeei ikasle bakoitzeko zenbateko nahikoa ematea, ahalbidetuko diena egokitzat jotzen duten materiala erostea, testu-liburuak ala bestelako curriculum-materiala izanda ere.

– Ikastetxe bakoitzaren zuzkidura ekonomikoa matrikulazio-aurreikuspenaren arabera kalkulatzeko, kontuan hartuta ikasturte osoan zehar ikasle kopurua handitu egiten dela.

– Zuzkidura baino % 10 gehiago esleitzea, aurreikusita testu-liburuak edo materiala hondatu edo galdu egin daitekeela.

– Uko egiteari buruzko aipamena kentzea.

Hezkuntza Departamentua kontrolatzea eta ikuskatzea testu-liburuaren doakotasunari buruzko programaren kudeaketa.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 9an.

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu zentro berezien erregistroa sor dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegu zentro berezien erregistroa sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Iragan den martxoan, Parlamentuan lan bilera bat egin zen Albornia, Adisco, Amimet eta Aspace enplegu zentro berezietako arduradunekin.

Laneratzeko eta gizarteratzeko ibilbidea ardatz hartuta, adierazi ziguten Nafarroako irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezi horien helburua dela ezgaitasunak dituzten pertsonen erabateko laneratzzea lortzea.

Enplegu zentro bereziak lan-zentro normalizatuan –Administrazioan nahiz ekimen pribatukoetan– integratzeko igarobide dira.

Goian aipaturiko enplegu zentro bereziek irabazi asmorik gabeko enplegu zentro berezien batzorde bat osatzen dute, zeinaren xedea baita ezgaitasunak dituzten pertsonen laneratzeko ibilbide bat garatzea. Zentro horiek ez dira baliabide finalistak; aldiz, haien helburua da enplegu duin eta egonkorra lortzea.

Erabaki proposamena:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu zentro berezien erregistro bat sor dadin eta bereiz daitezen irabazi asmoa duten zentrok eta irabazi asmorik ez dutenak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du argitasunez zehaztu dezan zeintzuk diren irabazi asmorik gabeko enplegu zentro bereziak eta zeintzuk diren zentro horiek jaso beharreko dirulaguntzak, irabazi asmoa duten zentroen aldean; izan ere, lehenbizikoak izaera finalistarik ez duten enplegu baliabideak baitira.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Etxalar, Baztan eta Zugarramurdiko udaletxeen aspaldiko beharra eta nahia izan da Etxalartik Zugarramurdira doan errepidea konpontzea. Gaur egun errepide honen egoera ez da batere ona eta pixkanaka okerrera doa. 2007. urtean izandako euriteek ere ez zioten batere mesederik egin.

Gai honekin loturik, gure talde parlamentarioak, Nafarroa Baik, aspalditik egin ditu ekimen desberdinak. Hauek errepidea konpontzearen aldekoak izan dira eta, kontuan hartuta bi herrien arteko bidea dela, hau da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituela, Nafarroako Gobernuari errepide hau bere gain hartuko lukeen ere galdetu izan zaio. Orain arte jasotako erantzuna ez da batere positiboa izan Etxalar, Baztan eta Zugarramurdiko herrien-tzat, ezta talde parlamentario honentzat ere.

Gaur egun, bi herrien arteko bidea egin behar dutenek, edota Etxalartik Urdazubira joan behar dutenek, 50 kilometro inguru dauzkate N-121-A eta Nafarroako-121-B errepideetatik barrena. Bi

herrien arteko errepidea konponduko balitz, ordea, pertsona desberdinek egin beharreko bidea 15 kilometro ingurukoa izanen litzateke. Jakina den bezala, errepide hau konpontzeko lehen aipaturiko udaletxeek ez dute ahalmen ekonomikorik; Nafarroako Gobernuak, aldiz, bai.

Nafarroa Bai talde parlamentarioaren ustez errepide honek gaur egun interes generala hartua du eta honen araberrako funtzioa betetzen du urtean zehar, eta ez interes lokala. Gero eta jende gehiago dago errepide hau erabiltzen duena eta honek, bidearen egoera kaskarra eta tamalgarria dela medio oso arriskutsua egiten du. Orain arte errepide hau gehienbat Etxalar eta Zugarramurdiko herritarrek erabili ohi izan dute. Gaur egun, ordea, bi herrien arteko bideak naturarekin, turismoarekin eta bertan praktika daitezkeen kirol mota desberdinekin izan ditzakeen lotura desberdinak eta aukera berriak direla eta, gero eta pertsona gehiago dira errepide hau erabiltzen dutenak.

Honen berri, orain gutxi Etxalar, Baztan eta Zugarramurdiko udaletxeek ere eman dute eta hauen aspaldiko nahia izan da errepide hau konpontzearena. Berriki, Etxalarko udaletxeak ere garbi adierazi du errepidearen egoera txarra eta bere arriskua zein den. Etxalartarrek errepidearen konponketa alegazio modura ere aurkeztu dute 2009-2016ko Nafarroako III. Errepideen Plan Zuzendarian. POT2 "Plan de Ordenación Territorial" delakoan ere garbi dator errepide hau konpondu beharrekoa dela, Oiartzun-Agiña-Lesaka-Etxalar -Zugarramurdi arteko bide-transbertsalitatearen barruan.

Gaia ez da berria, aurreko legealdian ere behin baino gehiagotan Etxalarko Eusko Alkartasunak adierazi izan zuen errepidearen egoera tamalgarria. Behin eta berriz, Nafarroako Gobernuaren erantzuna isiltasuna izan da.

Errepidearen egoera txarra nahiz arriskutsua ikusita, eta jakinik gaur egun gero eta jende gehiago dabilela bertan eta honek interes generala hartu duela, Nafarroa Bai parlamentu taldeak aurkeztu du honako erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Etxalartik Zugarramurdi-

ra doan errepedea Nafarroako Errepideen Sare Nagusian sartzea eta honen titulartasuna bere gain hartzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du errepede honen konponketa

2009-2016ko Nafarroako III. Errepideen Plan Zuzendariaren barruan egitea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da Nafarroako Parlamentua.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen baita Nafarroako Parlamentua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua erabiltzeko hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Atzo, 2010eko maiatzak 12, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak bederatzirako neurri osaturiko multzo bat iragarri zuen. Neurri horiek dekretu bidez onetsiko dira eta eragin kaltegarria izanen dute arlo sozialean, ongizate estatuaren murrizketa gogorra baitakarte.

Parlamentu-talde honen iritzian, erabat onartezina da gaur egun bizi duguna bezalako krisialdi ekonomiko batean, zeinaren larritasuna areagotzeko balio izan baitute Rodríguez Zapatero jaunaren

ren gobernuaren kontraesan eta inprobisazioek, Estatuko Gobernuak diseinaturiko neurriek pentsiodunengan, langileengan eta ongizate estatuaren murrizketan soilik izatea eragina.

Hori dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, mozio honen bidez, proposatzen du Nafarroako Parlamentuak erabaki bat hartzea, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak iragarritako neurrien aurrean kezka agertuko baitu eta neurri horiek arbuatuko baititu. Onartezina da defizit publikoa pentsiodunen bizkar murriztea, lehentasunezkoak ez diren –eta, gure ustez, nahitaezkoak ez diren– beste gastu batzuk kentzea planteatu ere egiten ez denean, hala nola defentsarako erabiltzen diren gastuak Afganistanen dauden tropak mantentzeko.

Defizita murrizteko politikak birformulazio fiskala hartu behar dute kontuan, non zerga-zama handitu zaien krisiari aurre egiteko egoera hobean dauden sektore guztiak. Kontuan hartu behar dituzte, halaber, gastuaren optimizazioa, lehentasunik ez duten azpiegiturak eta inbertsioak bertan behera uztea aztertuta, bankuen esku-hartze eta arautze handiagoa eta defentsa arloko gastuak eta espainiar armadako tropak Afganistanen mantentzeko erabakia berraztertzea.

Gure erkidegoan baditugu zenbait alorri buruzko eskumenak, eta agerikoa da gure autogobernuaren garapen erabatekoak ahalbideetako ligukeela gure politika propioak zehaztea, halako moduz non ez genukeen izan legezko betebeharririk Nafarroako gehiengo demokratikoak desegokizat jotako neurriak inportatzeko. Hala ere, gure autogobernua erabat garatzen ez den bitartean, egungo markoak ematen dizkigun aukerak aztertu behar ditugu, gure langileak, pentsiodunak eta ongizate estatua babeste aldera Estatuak onetsitako neurriak Nafarroan aplikatzeak ekarriko lituzkeen ondorioetatik.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu-ko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak 2010eko maiatzaren 12an iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du neurri horiek berehala bazter ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du defizit publikoaren murrizketa egiteko abiapuntutzat hartu

behar direla ongizate estatuarekiko konpromisoa, errenta eta etekin handien zerga-zama handituko duen birformulazio fiskala eta gastu sozialari lehentasuna ematea beste gastu batzuen aldean.

4. Nafarroako Parlamentua prest dago gure autogobernua politikoki aktibatzeko, aipatu neurriek eraginik izan ez dezaten gure erkidegoan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina, Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita % 15 jaits ditzan, ekainaren 1etik aitzina, Gobernuaren eta izendapen askeko goi karguen ordainsariak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Aipatu mozioa egoera ekonomikoari eta haren eraginei buruzkoa da, eta horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernu kideen eta Gobernu nahiz haren mendeko enpresa publikoetako izendapen askeko goi karguen soldatak eta gainerako

ordainsariak % 15 murriztu ditzan ekainaren 1etik aurrera.

Zioen azalpena

Ekonomiaren egoera ikusita, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, egoera horrek herritarren, eta bereziki pertsona behartsuenengan, izan ditzakeen ondorioak ahal den neurrian leuntzeko eta gutxitzeko, eta, horretarako, beharrezkoa da pentsiodunei eta enplegatu publikoei eskatzen zaien ahalegina edo sakrifizioa partekatzea.

Helburu horiek erdietsi eta, aldi berean, dirusarrera gutxi dituzten pertsona horiekin, bereziki langabetuekin, solidario izan nahi baldin badugu, neurriak hartu eta aplikatu beharra dago, munta gutxikoak eta eragin ekonomiko txikikoak izanagatik, zerbitzatzen dugun herritarrentzako adierazgarriak, eredugarriak eta solidarioak direnak hain zuzen ere.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Gobernuaren nahiz izendapen libreko gainerako goi karguen soldatak eta gainerako ordainsariak –Nafarroako Gobernuaren nahiz haren menpeko enpresa publikoetakoak– % 15 murriztu ditzan ekainaren 1etik aurrera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen die Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du egokia eta komenigarria dela hezkuntzari buruzko itun sozial eta politiko batera iristeko.

Zioen azalpena

Hezkuntza da gizartearen eta pertsonen garapen, hazkuntza eta hobekuntza lortzen gehien eta hobekien lagundu duen gizarte politika. Gaur egun, XXI. mendearen lehen hamarkada amaitzen ari den honetan, hezkuntza da ezagutzaren eta informazioaren gizartearen erronkei erantzutea bilatzen duten proposamen, eztabaida eta hausnarketa guztien ardatza.

Datozen urteetan aurre egin behar diegun erronken artean funtsezkoenak dira eskola-aban-

donua murriztea, pertsonen prestakuntzaren maila areagotzea edota ikasleen eta irakasleen nazioartekotzea edo mugikortasuna areagotzea. Autonomia erkidego guztiak bat datoz helburu orokor horiei lehentasuna ematerakoan, nahiz eta hezkuntza-testuinguru desberdinak izan erkidego horietan.

Baina, horretaz gain, helburu horiek Europar Batasuneko herrialde guztien ildo estrategikoen zati dira, hala berretsi baitzuten herrialdeok Bruse-lan maiatzaren 11n.

Finean, hezkuntza balio handiko ondasun publikoa da, eta hezkuntza-komunitateak eta gizarte osoak gai horri buruzko hitzarmen bat eskatzen diote klase politikoari.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak babesten ditu Hezkuntza ministroak eginiko ahaleginak hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko, Nafarroako irakaskuntza publiko nahiz itunduko zenbait kolektibo eta elkarteren, sindikaturen eta gurasoen elkarteren babesa izan baitu.

2. Nafarroako Parlamentuak hezkuntza arloko akordioetara iristeko aldeko jarrera agertzen du, halako moduz non kalitatezko eta bidezko hezkuntza-sistema lortuko baita, pertsona guztien aukera berdintasuna ziurtatuko duena eta Europar Batasuneko herrialdeek ezarritako helburuen lorpenean aurrera egingen duena.

3. Nafarroako Gobernuak konpromisoa agertzen du hezkuntza-komunitatearen eta gizartearen eskakizunak kontuan hartzeko, gure hezkuntza-sistemari egonkortasuna emanen dion hezkuntzari buruzko itun bat lortze aldera.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala, homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko egunaren kariatara, Nafarroako Parlamentuak:

– Bere elkartasuna adierazten die mundu guztian zehar beren sexu-joera edo genero-nortasuna dela-eta diskriminazio larriak pairatzen jarraitzen duten milioika pertsoneri, dei egiten die herritar guztiei eta bereziki gainontzeko erakunde publiko-
ei, homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatu daitezzen.

– Herritar guztien berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du, zein ere den haien sexu-joera edo genero-nortasuna.

– Bere esker ona helarazten die homosexualen eta transexualen eskubideen aldeko erakunde guztiei; izan ere, lan handia egiten ari dira, jakitun haien lana eta ahalegina funtsekoak direla gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitze-
ko, homofobiarik, lesbofobiarik eta transfobiarik gabeko gizarte bat eraikitze-
ko.

– Transexualitate edo genero-disforia gaixotasun mentalen zerrendatik kentzearen alde ager-

tzen da, eta, hortaz, transexualitatea despatologizatzearen aldeko apustu irmoa egiten du. Hartara, bat egiten du 2012ari begira bidegabekeria hori desagerraraztea eskatzen duten giza- nahiz gizarte-eskubideen aldeko erakundeekin, bidegabekeria horrek mundu guztiko transexualen bazterketa, onespen eza eta marjinazioa hauspotzen baititu.

– Nafarroako Gobernuak nahiz Estatuko erakundeek egin beharreko aldaketak egin ditzaten nahi du, psikiatrizatu gabeko sexu-berresleitze prozesu bat ahalbidetze aldera Pertsonen sexuaren aipamena erregistro zibilean zuzentzea arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legearen eta Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legearen esparruan.

– Arestian adierazitakoari jarraikiz, gogora ekarri nahi du Parlamentu honen Osoko Bilkurak 2008ko maiatzaren 8an aho batez onetsitako mozioa, maiatzaren 17a homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna deklaratzearen aldekoa.”

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Catalán jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nola hartuko du parte Nafarroako Foru Komunitateak Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Catalán jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari dagokionez?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Mugapeko Plan Hidrologikoaren baitan hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Mugapeko Plan Hidrologikoaren baitan hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

2009ko otsailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Parlamentu honek ondoko erabakia, 2009ko otsailaren 24ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010eko abendua baino lehen plan bat aurkez dezan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta autonomia erkidego interesdunekin lankidetzan prestatutako Barrutiko Plan Hidrologikoaren barruan, zeinetan jasoko baitira Queiles ibaiaren ekosistema zaintzeko eta hobetzeko aplikatzekoak diren neurriak, bai eta horretarako balia daitezkeen arau izaerazko tresnak eta inplikaturiko administrazioek aplikatu beharreko neurriak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jaso eta balora ditzan inplikaturiko toki entitateek, eragile sozialek eta ingurumenaren arloko eragileek eginiko proposamenak, kontuan hartuta bereziki Plan Hidrologikoa onesteko bultzatutako prozesuan aurkeztutakoak”

Erabaki hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

Zer urrats egin dira Queiles ibaiari buruzko erabaki hori betetze aldera? Zure departamentuaren ustez, bateragarriak al dira erabaki hori nahiz Mugapeko Plan Hidrologikoaren baitan hartutako erabakiak eta zenbait udalek egin nahi dituzten hirigintza-jarduketak, ibaiaren ibilguan eragina izan dezaketenak?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, osasunaren prebentzioari eta sustapenari buruzko programetarako kontusailek 2010ean murrizketarik izanen duten jakiteko.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, osasunaren prebentzioari eta sustapenari buruzko programetarako kontusailek 2010ean murrizketarik izanen duten jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzeta.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 Ebazpenaren bidez onetsi zen toki entitateei eta bestelako erakunde, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei 2010. urtean diru-laguntzak emateko deialdia, prebentzioa eta osasuna sustatzeko programetarako.

Jakin dugunez, deialdi horretara aurkeztu dira deialdi horretan parte har dezaketen zenbait entitateen programak, eta, horrenbestez, ondokoa jakin nahi dugu:

Xede horretara bideratutako kontusailek izan al dute edo izanen al dute inolako murrizketarik edo blokeorik?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, gure erkidegoan eperren kopurua jaitsi izanari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, gure erkidegoan eperren kopurua jaitsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

- Gure erkidegoko eperren kopurua jaitsi dela ikusita, zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak eper kopurua leheneratzeko? Populazioaren xehakapena urtez urte.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Esako Sierra Nevada, S.L. arrain-haztegiko gaizkatararen hazkuntzari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Esako Sierra Nevada, S.L. arrain-haztegiko gaizkatararen hazkuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek lehenago ere aurkeztu izan ditu Esako arrain-haztegian gaizkatararen hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruz. Bi departamentuk erantzun izan dituzte galdera horiek. Halere, Esako Udalaren bulegoetan izan naiz, eta han egiaztatu ahal izan dut erantzunetan esandakoa ez datorrela bat udal horretako administrazio-prozeduran azaldutakoarekin.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dugu, zenbait alderdi argitze aldera:

1. Kontseilariak, 2009ko maiatzaren 14an parlamentari honi emandako erantzunean zioen ez dagoela administrazio-espediterik gaizkatararen hazkuntzari buruz, baina hor dago Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren 2008ko apirilaren 11ko ebazpena. Zer txosten juridiko darabil departamentuak esandakoa esateko?

2. Kontuan izanda 2009ko apirilean argitaratutako erantzunak, Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. Esan legez kanpo egiten ari zenari lege-babesa emateko onetsi al zen 730/2008 Ebazpena?

3. Nola izan liteke Osasun Publikoaren Institutuak, Esako Udalean 2009ko irailaren 22an jasotako

idazkiaren arabera, udal horri esatea Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.k ez daukala abeltzaintzako ustiategiko libururik eta Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzuko zuzendariak, 2008ko maiatzaren 9ko idazkian, eduki badaukala esatea?

4. Nola izan liteke Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzuko zuzendariaren idazkian, zein-tan esaten baita Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.k badaukala abeltzaintzako ustiategiko liburuak, 730/2008 Ebazpenaren data oker ematea?

5. Esako Udalean dauden administrazio-errekurtsoen espeditenteetan Herri Lurren Atalaren txosten bat ageri da. Nork eskatu zuen txosten hori? Txosten hori egiteko eskatzen zuten agirien kopia nahi dugu.

6. Zein egunetan jakinarazi zaizkio Esako Udalari Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren 730/2008 eta 1998/2009 ebazpenak? Udalak ezezkoa eman dio jarduera sailkatua izapidetzeari, eta Nafarroako Gobernuari egintza administratibo hori jakinarazi dio. Zer txosten juridiko dago departamentuan Esako Udalari ebazpen horien berri ez emateko?

7. Nola izan liteke Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariak Parlamentuan esatea Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. ez dagoela alta emanda Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, baldin eta udalean jasota ageri bada zerga horretan alta emanda dagoela?

8. Kontuan izanda Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria eta Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea Sodenako Administrazio Kontseiluko kideak direla, ohikoa al da Sodenaren parte-hartzea duten enpresek ez jakitea Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dauden ala ez?

9. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman zuen gestoriak Sodenarekin lankidetzan jardun ohi du. Nork agindu zuen Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emateko Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ri? Zenbat diru eta zein kontzepturengatik fakturatu dio gestoria horrek Sodenari 2008an eta 2009an? Esako Udalaren aurkako administrazio-errekurtsoetan Arpa abokatuen bulegoa da Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.-ren ordezkaria. Zenbat diru fakturatu dio bulego horrek Sodenari 2008an eta 2009an?

10. Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak 2009an emandako 1.700etik 2.100era bitarte-

ko ebazpenen kopia jaso nahi dugu, bai eta haien edukiaren laburpena ere, zehatz adierazita ebazpena ekarri zuen administrazio-izapidea zein egunetan eskatu zen.

11. Zer egunetan jarri zen *Nacarii* espeziea *Baerii* espeziearen orde? Jakinarazi al zitzaien aldaketa hori Esako Udalarari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari? Zein egunetan jakinarazi zitzaien? Kontuan hartu al da aldaketa hori Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren 730/2008 eta 1998/2009 ebazpenetan?

12. Nafarroako Gobernuaren ustez, 5.685 aleko kopurua egokia al da behin-behineko baimena emateko?

13. Nafarroako Gobernuak ba al daki bere jabetzapeko lurretan –izan ere, berarena da Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ren kapitalaren % 45–

milaka amuarrain dagoela lurperaturik inolako baimenik gabe eta haien lixibiatuak Aragoi ibaira –Batasunaren intereseko leku batera, alegia– isurtzen direla?

14. Ingurumen Departamentuak zer jarduketa egin ditu Esako Udalak Artaxoako Guardia Zibilaren-Sepronaren akta jakinarazi ondotik?

15. Foruzaingoko patruila ekologikoak zergatik jarraitzen du Esako amuarrain-instalazioetara joan gabe?

16. Nafarroako Gobernuak Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.ri emandako gaizkata-probak egiteko azken baimenaren kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren baitan turismoaren sektorea sustatze eta dibertsifikatze aldera eginiko jarduketei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoaren baitan turismoaren sektorea sustatze eta dibertsifikatze aldera eginiko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa

Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoan jasotako jarduketak zazpi ardatzen arabera banatu dira: azpiegiturak eta komunikazioak; jarduera ekonomikoak; ondarea eta kultura; ingurumenaren kudeaketa; lurralde-egitura, hirigintza-garapena eta etxebizitza; ekipamenduak, zerbitzu publikoak eta gizarte ongizatea; neurri ekonomiko eta fiskalak; eta, azkenik, planaren kudeaketa.

Oro har, jarduketa azpimarragarrienak izan dira zerbitzu publikoetako sarbidea hobetzera zuzendurikoak –aurrekontuaren % 306 bete da–, sektore turistikoaren sustapena eta dibertsifikatzea zuzendurikoak –% 205,44–, baliabide kultural eta ondarezkoak leheneratzea eta babestera zuzendurikoak –% 195,59–, eta hirigintza-garapena eta etxebizitza eskuratzea hobetzera zuzendurikoak –% 188,45–.

Zeintzuk izan dira sektore turistikoaren sustapen eta dibertsifikazioaren alorrean eta baliabide kultural eta ondarezkoak leheneratu eta babesteari dagokionez eginiko jarduketak? (Jarduketa, haren deskribapena, herria, aurrekontua eta egungo egoera adieraztea nahiko nuke).

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera, Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean parte hartzeari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera, subsidiarotasun-printzipioaren kontrolari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruz legelari nagusiak eta Zerbitzu Orokorretako buruak emandako txostenak eta Kontu-hartzaitzak emandako kreditu-ziurtagiria ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 9. artikulua-rekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarrien arabera egingen da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzea, Zuzenbideko lizentziatuak izan eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko lanean ari diren funtzionarioen artean.

1.2. 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan edo, bestela, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko

Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta hori garatu eta betearazteko sarrera erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan xedaturikoarekin bat burutuko da oposizio-lehiaketa.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, legelarien kidegoarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu. Haren eginkizunak 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoak izanen dira; honakoak, besteak beste: Parlamentuko organoentzako aholkularitza juridiko eta teknikoa; ebazpenak, txostenak, irizpenak eta aktak idaztea; Nafarroako Parlamentua ordeztu eta defendatzea epai-organoen eta Konstituzio Auzitegiaren aurrean; eta goi mailako azterlanak eta proposamenak egiteko eginkizuna.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuko nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua eta indarra duten eskubide eta eginbeharrak izanen ditu. Zerbitzuak arduraldi eskusiboko araubidean emanen ditu.

1.5. Lanpostuak A mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.6. Izendatzen den funtzionarioa Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartu eta afiliatuko da, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta hori osatzen duten xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kidea bada, kasu horretan aukera izanen baitu araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaz afiliatzeko.

1.7. Lanaldia Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabakiko du, eta edozein unetan aldatu ahalko da, zerbitzuaren premien arabera.

2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta lanpostua betetzeko prozedurak irauten duen denbora guztian, harik eta lanpostua betetzeko unera arte, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitatez espainiarra izatea.
- b) Adin nagusikoa izatea eta erretiroko adina ez izatea.
- c) Zuzenbideko lizentziatuaren unibertsitate-tituluaren jabea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea betetzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.
- d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik ez egotea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik berezia ez izatea.
- f) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa izatea eta abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaetzko eszedentzian ez egotea.
- g) Deialdiko lanpostu hutsaren maila berekoa edo apalagokoa izatea.
- h) Administrazio publikoetan bost urteko antzinateasun onartua egiaztatzea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. eta 7. oinarrietan ezarritako epe eta eran egiaztatuko beharko dira.

3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Oposizio-lehiaketan parte hartu nahi dutenek eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, deialdi honi erantsitako eredu ofizialaren arabera (1. eranskina).

Eskabideak Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean eskuratu ahalko dituzte interesdunek, edo, bestela, Nafarroako Parlamentuko webguneko (www.parlamento-navarra.es) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean.

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari: a) Zuzenbideko lizentziatuaren tituluko fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena. b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkaturik, eta haien egiaztagiria, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 – Iruña), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako batean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hogeita hamar egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Ezgaitasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean haien eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera ezgaitasunen bat dutela frogatzeko legezko ezgaitasuna frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du. Zerrendak onartutako izangaien izen-deiturak jasoko ditu. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko dira behin betiko zerrendak. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean (www.parlamento-navarra.es) argitaratuko da.

4.2. Interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean (www.parlamento-navarra.es) argitaratuko da.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauek dira lehiaketa-oposizioa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Lehendakaria: Nafarroako Parlamentuko lehendakaria edo hark eskuordeturiko Legebiltzarreko mahaikide bat.

Epaimahaikidea: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Epaimahaikidea: Jesús Corona Ferrero jauna, Kantabriako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Ángel Sanz Pérez jauna, Kantabriako Parlamentuko legelaria.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Epaimahaiko idazkaria: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Gemma Sánchez Lerma andrea, Comptos Ganberako legelaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aitzin eratu beharko da. Ez du eratzerik izanen, ez eta aritzerik ere, bertan mahaikide gehienak ez badira.

5.3. Epaimahaiaren eraketak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu.

5.5. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria. Oposizio-lehiaketaren nondik norakoa.

6.1. Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu, lehenik lehiaketaldia izanen da eta ondoren oposizioaldia.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian 30 puntu eskuratzen ahalko dira gehienez. Fase hori 2010eko ekainaren 30a baino lehen ebatziko da eta ez da izanen

izangaiek baztertzekoa. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Honela banatuko dira puntuak:

- a) Lanbide-esperientzia, 20 puntu arte.
- b) Merezimendu akademikoak, 5 puntu arte.
- c) Beste merezimendu batzuk, 5 puntu arte.

6.2.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu duten unean. Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.2.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.2.4. Lehiaketaldiko merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean, eta hamar egun naturaleko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

6.2.5. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da izangaiek lehiaketaldian lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Gero oposizioaldian lortzen direnei gehituko zaizkie, horrela oposizio-lehiaketan izandako puntuazio osoa aterako baita.

6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Oposizioaldia 2010eko urrian hasiko da, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean gutxienez ere 10 egun natural lehenago iragarriko diren tokian, egunean eta orduan.

6.3.2. Oposizioaldian bi ariketa egingen dira, bata teorikoa eta bestea praktikoa, eta bakoitzaren barnean bi proba egingen dira. Guztira 70 puntu eskuratu ahalko dira. Lau probak baztergarriak izanen dira. Gainditzeko haietariko bakoitzean puntu en erdiak lortu behar dira. Halaber, bazterturik geratuko da lehen eta bigarren ariketetako edozein gai edo kasu praktikotan, hurrenez hurren, 0 puntuko kalifikazioa ematen zaion izangaia.

6.3.3. Oposizioaldiko ariketa teorikoa eginen da lehendabizi. Gehienez ere 34 puntuko balorazioa lortuko da, eta bi proba egin beharko dira:

a) Lehenbiziko proba (teorikoa): gehienez ere 4 orduan, idatziz garatu beharko dira Zuzenbide Konstituzionaleko eta Europar Batasuneko Zuzenbideko gai bat (III. eranskineko 1. multzoa) eta Hauteskunde-zuzenbideko eta Zuzenbide Parlamentarioko gai bat (III. eranskineko 2. multzoa). Gaiak zozketaz erabakiko dira. Proba hori gehienez ere 17 punturekin baloratuko da, eta gai bakoitzarengatik gehienez ere 8,5 puntu emanen dira. Proba gainditzeko, berriz, gutxienez ere 8,5 puntu lortu beharko dira.

b) Bigarren proba (teorikoa): gehienez ere 4 orduan, idatziz garatu beharko dira Zuzenbide Administratiboko, Zuzenbide Finantzarioko, Lan Zuzenbideko eta Zuzenbide Prozesaleko gai bat (III. eranskineko 3. multzoa) eta Nafarroako Zuzenbide Publikoko gai bat (III. eranskineko 4. multzoa). Gaiak zozketaz erabakiko dira. Proba hori gehienez ere 17 punturekin baloratuko da, eta gai bakoitzarengatik gehienez ere 8,5 puntu emanen dira. Proba gainditzeko, berriz, gutxienez ere 8,5 puntu lortu beharko dira.

6.3.4. Ariketa teorikoa amaiturik, ariketa praktikoa eginen da. Guztira 36 puntu lortzen ahalko dira eta oraingoan ere bi proba eginen dira:

a) Lehenbiziko proba: gehienez ere bost orduan irizpen edo txosten juridiko bat idatziz garatu beharko da, Nafarroako Parlamentuko legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatutako kasu bati edo kasu batzuei buruz.

b) Bigarren proba: gehienez ere 5 orduan, azterlan, proposamen, irizpen edo iruzkin juridiko bat idatziz garatu beharko da, Nafarroako Parlamentuko legelarien eginkizunez epaimahaiak proposatutako kasu bati edo kasu batzuei buruz.

Proba praktikoa bakoitza gutxienez ere 18 punturekin baloratuko da. Proba horien edukiak lotura izanen du deialdiko III. eranskinean ageri diren gaiekin.

Ariketa hori egiteko, izangaiek lege-testuen eta jurisprudenziaren bildumak, beraiek eramandakoak, erabili ahalko dituzte.

6.3.5. Probak idatziz eginen dira. Proba bakoitza egin ondoren, idatziak dauzkaten folioak kartazal batean sartuko dituzte izangaiek. Kartazal horren hegalean interesdunak eta epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute. Idazkariak gordeko du.

Behar denean eta hurrenkera alfabetikoaren arabera, lehiatzaileak berak izenpeturiko kartaza-

lak epaimahaiaren aurrean ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Mahaikideek, probak irakurri ondoren, argibideak eskatzen ahalko dizkiete izangaiei beren ariketen edukiaz. Ariketak jendaurrean irakurri ondoren, Epaimahaiak, ariketak aztertu eta zuzendu ondoren, kalifikatuko ditu.

6.3.6. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak proba hori gainditu duten izangaieen zerrenda jarriko du ikusgai Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean; halaber, hurrengo proba zein tokitan, egunetan eta ordutan eginen den adieraziko du, gutxienez 48 ordu lehenagotik. Kalifikazio hori batuko zaio izangaiek lehiaketaldian ateratakoari, eta horrela emanen da oposizio-lehiaketako puntuazio osoa.

6.3.7. Proba bakoitzerako deialdi bakarra eginen da. Izangaiek aldean izan beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat. Azterketan azaltzen ez direnak edo nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.3.8. Oposizioko probak egiteko orduan, hala xe eskatzen duten minusbaliatuek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

7. oinarria. Probak gainditu dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketa bukatu ondoren, oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaieen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran. Azken emaitzan berdinketarik izanez gero, lehiaketaldian puntu gehien lortu dituen izangaiearen alde ebatziko da, eta, berdinketak irauten badu, lehen proba praktikoa puntu gehien lortu dituen izangaiearen alde.

7.2. Epaimahaiak puntu gehien lortu dituen izangaia izendatzeko proposamena igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, oposizio-lehiaketako aktarekin eta gainerako agiriekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Proposaturiko izangaiek, proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 egun natural igaro baino lehen, langileriaren arloko kudeaketarako eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko dio Nafarroako Parlamentuari.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria

dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua, aurkeztu beharko dute.

7.4. Aipatu epearen barranean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuak salbuetsiz, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, euren eskabidearen faltsukeria dela eta, legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

7.5. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hutsune hori betetzeko, probak gainditu dituztenen zerrendan –7.1 idatz-zatian aipatutakoan, hain zuzen ere– hurrengo den izangaia hartuko du, eta azken horrekin ere aurreko idatz-zatietan adierazitako moduan jokatu du.

8. oinarria. Izendapena.

8.1. Deialdi honetako 7.3. oinarrian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposatutako izangaia funtzionario izendatuko du. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendapena jakinarazi eta hilabeteko epean, izangaiak karguaren behin betiko jabetza hartu beharko du Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aurrean.

8.3. Ulertuko da izangai batek, epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, oposizio-lehiaketaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, lanpostua deialdiko 7. oinarrian aipatzen den proposamenean hurrengo dagoen izangaiarekin beteko da.

9. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

9.1. Izangaiak, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

9.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak itzultzeko eskatu gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak berreskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu eginen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde eginen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

10. oinarria. Errekurtsioak.

10.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsioa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

10.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

I. eranskina

Izen-deiturak:
Adina: NAN zenbakia: Nafarroako Parlamentuko zerbitzuko funtzionarioa, honako lanpostuan:

ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzeko deialdia onetsi dela, eta hartan parte hartu nahi dudala Deialdia 2010ekoaren(e)ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebehar guztiak betetzen ditudala, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Zuzenbideko lizentziatuaren tituluko fotokopia konpultsatua erantsi dudala, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Deialdiaren 3.2.b) oinarriari jarraituz, eskabide honi erantsitako agiri batean zerrendatu ditudala, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea.

Iruñean, 2010ekoaren(e)an.

(sinadura)

II. eranskina

Merezimenduak baloratzeko baremoa

1.- Lanbide-esperientzia, 20 puntu arte.

a) Parlamentuetan legelari lanpostuetan emandako zerbitzuak: puntu bat urte bakoitzeko. 12 puntu lortu ahalko dira gehienez.

b) Administrazio publikoetan A mailako edo taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, lanpostu horietarako zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu bada: 0,50 puntu urte bakoitzeko. 6 puntu lortu ahalko dira gehienez.

c) Sektore publikoan edo pribatuan eginiko jarduera profesionala, bete beharreko lanpostuarekin zuzeneko lotura duena: 0,25 puntu urte bakoitzeko. 2 puntu lortu ahalko dira gehienez.

2.- Merezimendu akademikoak: 5 puntu lortu ahalko dira gehienez.

Zuzenbideko Lizentziaturako ikasketetan lortutako bikain bakoitzari 0,05 puntu emanen zaizkio, eta 0,10 ohorezko matrikula bakoitzari, baldin eta epaimahaiari lanpostuko eginkizunekin loturiko irakasgaietan lortuak direla iruditzen bazaio.

Atal honetan doktoretzako probari 0,80 puntu emanen zaizkio baldin deialdi honetan parte hartzeko ezarritako goi mailako ikasketei buruzkoa bada.

Legelari izateko lanpostuko eginkizunekin zerikusia duten beste titulazio eta unibertsitate-ikasketak batzuk ere baloratuko dira atal honetan: 0,50 puntu emanen dira erdi mailako titulazioengatik eta 0,80 puntu goi mailako titulazioengatik.

Unibertsitateko master bakoitzari 0,50 puntu emanen zaizkio, baldin eta ikasturte batek edo haren kreditu baliokideek adinako iraupena badute gutxienez, eta epaimahaiak bere esku izanen du puntuazio hori masterraren iraupenaren arabera eta lanpostuko eginkizunekin haren edukiak duen loturaren arabera egokitzea.

3.- Legelari gisa bete beharreko eginkizunekin lotura duten beste merezimendu batzuk, esate baterako, Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, euskaraz jakitea, prestakuntza espezializatuko ikastaroak egin izana, artikulua eta txostenak edo komunikazioak biltzar eta mintegietara bidaltzea etab., gehienez ere 5 puntu arte.

Atal honetan Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea honela baloratuko da: oinarrizko zikloagatik 0,40 puntu eta goi mailako zikloagatik 0,80 puntu. Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialak edo erakunde baliokide batek emandako ziurtagiriaren bidez frogatu behar da.

Euskara jakitea honela baloratuko da: oinarrizko zikloagatik 0,45 puntu eta goi mailako zikloagatik 0,90 puntu. EGA titulua, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiria edo agiri baliokidea aurkeztu behar da.

Atal honetan baloratuko da, aurrekoetz gain, entitate bai publiko bai pribatuek antolatutako prestakuntza-ikastaroak egin izana, baldin eta 12 ordutik gorako iraupena badute gutxienez eta lotura baldin badute legelari lanpostuko eginkizunekin, eta 0,05 puntu emanen da 12 prestakuntza-ordu edo balio bereko zati bakoitzeko.

Txosten edo komunikazioak biltzar eta mintegietan aurkezteari, liburuak argitaratzeari edo artikulua aldizkari espezializatuaren argitaratzeari dagokienez, baldin eta haien edukiak lotura baldin badu legelari lanpostuko eginkizunekin, 0,50 puntu bitarte emanen zaizkio liburu, artikulua, txosten edo komunikazio bakoitzari.

A mailako lanpostuetarako administrazio publikoetako oposizioak edo oposizio-lehiaketak gainditu izana, horietarako deialdi honetan eskatzen den titulua edukiz gero: 1 puntu gaindituriko deialdi bakoitzagatik.

Baremoko puntuak aplikatzeko oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Hirugarrena. Ez dira baloratuko aldi berean emandako zerbitzuak, lanaldi partzialean emandakoak ez badira.

Laugarrena. Ez dira aintzat hartuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren egindako zerbitzu edo merezimenduak.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira. Funtzionario behin betikoz izendatu baino lehen egindako praktika-aldiak ere osorik baloratuko dira.

III. eranskina
Gai zerrenda

1. multzoa
Zuzenbide Konstituzionala
eta Europar Batasuneko Zuzenbidea

1. Espainiako Zuzenbide Publikoaren iturriak: aipamena, antolaketa eta printzipioak.

2. Konstituzioa arau juridiko gisa: esanahia eta eraginkortasuna. Konstituzioaren nagusitasuna: superlegezkotasuna. Konstituzio-arauak interpretatzeko irizpideak. Legeak Konstituzioaren arabera interpretatzea.

3. Legea. Kontzeptua eta motak. Lege erreserba. Estatuko legeak Espainiako sisteman. Lege arruntak. Lege organikoak: izaera, edukia eta izaipidetzea.

4. Legearen indarra duten gobernuaren xedapenak: bilakaera eta arazo orokorrak. Lege dekretuak. Muga formal eta materialak. Lege dekretuen kontrol parlamentarioa.

5. Legegintzarako eskuordetzea: izaera eta modalitateak. Eskuordetzeko legeen baldintza konstituzionalak. Legegintzako dekretuen baldintzak. Legegintza eskuordetuaren kontrol jurisdikzional eta parlamentarioa.

6. Zuzenbide Publikoaren beste iturri batzuk: nazioarteko itunak. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Jurisprudentzia. Usadioa Zuzenbide Publikoan.

7. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Hura taxutzeko prozesua. Ezaugarriak. Egitura. Konstituzioaren erreforma.

8. Konstituzioaren printzipioak. Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa: esanahia. Espainiako Konstituzioaren balio gorenak eta 9. artikuluko printzipioak.

9. Monarkia parlamentarioa. Koroa: esanahia eta atribuzioak. Berronespena.

10. Aniztasun politikoa. Alderdi politikoak. Alderdi politikoen estatus juridikoa demokrazia garaikideetan.

11. Aniztasun sindikala. Sindikatuak. Aniztasun sozial eta ekonomikoaren beste aitorten modu batzuk Espainiako Konstituzioan.

12. Gorte Nagusiak: egitura eta osaera. Biltzarraren antolaketa: gobernu-organismoak eta lan parlamentarioarako organismoak.

13. Diputatuaren estatutua. Gorte Nagusien funtzionamendua.

14. Gorte Nagusiak: legegintzako eginkizuna. Bultzatze eta zuzendaritza politikoaren eginkizuna.

15. Gorte Nagusiak: kontrolerako berariazko prozedurak. Eginkizun ekonomikoa eta Kontuen Epaitegiarekiko harremanak.

16. Gobernua: Osaera, egitura eta eginkizunak. Gobernuko lehendakariaren figura.

17. Gobernuko lehendakariaren inbestidura-prozedura. Zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa. Gobernu-krisia. Biltzarra desegitea.

18. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia erkidegoak. Autonomien ekimena. Autonomia erkidegoak sortu, aldatu eta desegiteko modua.

19. Autonomia-estatutuak. Izaera. Ezaugarriak. Edukia. Egiteko eta berritzeko prozedurak.

20. Eskumenen banaketa Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean.

21. Autonomia erkidegoen antolaketa. Estatuak autonomia erkidegoen gainean egiten duen kontrola.

22. Estatuaren eta autonomia erkidegoen legegintza ahalmena. Estatuaren antolamenduaren eta autonomia erkidegoen antolamenduaren arteko harremanetarako sistemak. Oinarrizko legeak, esparru-legeak, transferentzia- edo eskuordetze-legeak eta harmonizazio-legeak. Autonomia erkidegoen legeak.

23. Botere Judiziala. Eginkizun judiziala 1978ko Konstituzioan. Boterea eta eginkizun judizialak antolatzeko eta funtzionatzeko printzipio konstituzionalak. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Ministerio Fiskala.

24. Kontuen Auzitegia. Zer den. Osaera eta antolamendua. Fiskalizatzeko eginkizuna. Eginkizun jurisdikzionala.

25. Jurisdikzio konstituzionala Espainian: aurrekariak eta egungo erregulazioa. Konstituzio Auzitegia. Erakunde konstituzional gisa betetzen duen tokia. Osaera, antolakuntza eta eginkizunak. Eskumenak.

26. Lege mailako arauen konstituzionaltasunaren gaineko kontrola: Konstituziokontrakotasuneko errekurtsua eta konstituziokontrakotasuneko arazoa. Nazioarteko itunen gaineko aurretzeko kontrola.

27. Estatuko organoen arteko konstituzio gatazkak. Estatuko organoen eta autonomia erkidegoetako organoen arteko nahiz autonomia erkidegoen arteko eskumenengatiko gatazka konstituzionalak. Autonomia erkidegoen xedapenen eta ebazpenen

aurkaratzea. Tokiko autonomia aldezteko gatazkak.

28. Eskubideen babes judiziala Konstituzioan. Bide judiziala. Prozedura sumarioa eta lehentasunezkoa. Konstituzioko babes errekurtsua. Giza Eskubideen Europako Auzitegian aurkezturiko errekurtsua. "Habeas corpusa".

29. Herritarren eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak Espainiako Konstituzioan. Eskubide eta betebeharrak.

30. Berdintasunerako eskubidea. Bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko nahiz morala izatekoa. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea. Bizilekuaren eta komunikazioen bortxaezintasunerako eskubidea.

31. Adierazpen-askatasuna. Erlijio-askatasuna. Biltzeko eta manifestazioak egiteko eskubideak. Elkartzeko eskubidea. Askatasun sindikala.

32. Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea eta kargu publikoak lortzeko eskubidea. Sufragio eskubidea. Eskariak egiteko eskubidea. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Berme prozesalak.

33. Betebehar militarrik. Kontzientzia eragozpena. Justizia tributarioaren printzipioa. Jabetza pribatua eta enpresa-askatasuna. Lanerako, lan-negoiazio kolektiborako eta gatazka kolektiborako eskubidea.

34. Espainian dauden atzerritarren eskubideak eta askatasunak.

35. Konstituzio ekonomikoa. Eredu ekonomikoaren printzipioak eta helburuak Konstituzioan.

36. Herriaren Defendatzailea. Eskumenak eta jarduteko moduak.

37. Europar Batasunaren prozesua. Aurrekariak, helburuak eta izaera juridikoa. Batasuneko jatorrizko Zuzenbidea: eratze itunak. Batasuneko zuzenbide eratorria: erregelamenduak, zuzentzerak eta bestelako iturriak. Subsidiaritasun printzipioa.

38. Europar Batasunaren antolamendua. Lisboako Ituna. Parlamentua. Europako Kontseilua. Europako Batzordea. Kontseilua (ministroena). Justizia Auzitegia. Beste erakunde batzuk.

39. Europar Batasuneko herritarren eskubide eta askatasunak. Europar herritartasuna.

40. Europar Batasunaren baliabide finantzarioak. Europar Batasunaren finantziarioa: Batasunaren aurrekontua. Estatu-laguntzak eta haien gaine-

an Europar Batasunak egiten duen kontrola. Batasuneko funtsak: motak eta xedeak.

2. multzoa

Hauteskunde-zuzenbidea.

Zuzenbide Parlamentarioa

41. Zuzeneko demokraziaren erakundeak. Sasi zuzeneko demokraziaren erakundeak. Herri-ekimena eta erreferenduma Espainiako Konstituzio Zuzenbidean. Azken bi figura horiei buruzko azterketa Nafarroako Zuzenbidean.

42. Sufragio eskubidea eta haren modalitateak. Hauteskunde-barrutia. Hauteskundeetarako formulak.

43. Espainiako -estatuko eta autonomia erkidegoetako- Hauteskunde-zuzenbidearen egungo iturriak. Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde-sistema.

44. Autonomia erkidegoetako biltzarretako hauteskunde-sistema. Toki entitateak eta Europako Parlamentua hautatzeko sistema.

45. Nafarroako Parlamentuko hauteskunde-sistema. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea.

46. Hauteskunde-ahalmen aktiboa. Hauteskunde-zentsua: izen ematea eta nola egiten den. Hauteskunde-zentsuaren Bulegoa. Nafarroako Parlamentuaren aipamenak.

47. Hauteskunde-ahalmen pasiboa: ezin hautatua izateko eta bateraezintasuneko arrazoiak. Nafarroako Parlamentuaren aipamenak.

48. Hauteskundeen antolaketa. Hauteskunde administrazioa. Hauteskunde Batzorde Zentrala: izaera, osaera eta atribuzioak. Nafarroako Hauteskunde Batzordea. Batzorde probintzialak eta eskualdeetakoak. Hauteskunde-mahaiak eta -sektioak.

49. Hauteskundeetarako deialdia. Hautagaitzak: motak, aurkezpena eta aldarrikapena. Hauteskunde kanpaina. Propaganda: titulartasun publikoko baliabideak erabiltzea. Nafarroako Parlamentuaren aipamenak.

50. Hauteskunde mahaien osaera. Ahaldunak eta kontu-hartzaileak. Kartazalak eta boto-paperrak. Botazioa. Boto-kontakteta: mahaietako boto-kontakteta eta boto-kontakteta orokorra. Hautetsiak aldarrikatzea.

51. Hauteskundeetako kontuak eta gastuak. Hauteskundeetarako diru-laguntzak. Intzidentzia errekurtsuak prozesuan zehar eta hauteskundeei buruzko auzia.

52. Hauteskunderen arloko delituak eta arau-hausteak. Alderdi orokorrak. Hauteskunde-delituak. Prozedura judiziala. Hauteskunderen arloko arau-hausteak.

53. Parlamentari izaera eskuratu, eten eta gal-tzea. Eskubideak, betebeharrak eta prerrogatibak. Parlamentarien bortxaezintasuna eta immunitatea: kontzeptua, oinarria eta mugak. Nafarroako Parla-mentuaren aipamenak.

54. Agindu parlamentarioa. Agindu parlamenta-rioaren iraungitzea. Parlamentuaren desegitea: moduak eta eraginak. Nafarroako Parlamentuari dagokiona bereziki.

55. Ordezkaritza politikoko aldi baterako ordeztea. Balizko konponbideak.

56. Zuzenbide Parlamentarioaren iturriak. Nafarroako Zuzenbide Parlamentarioaren iturriak.

57. Parlamentuetako erregelamenduak. Zer diren. Iturrien sisteman betetzen duten tokia. Arau parlamentarioak sortzeko prozesua. Parlamentue-tako erregelamenduen gaineko kontrola.

58. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua. Prestaketa, erreforma, egitura eta interpretazioa. Nafarroako Parlamentuaren erregelamenduak. Nafarroako Parlamentuaren beste arau batzuk.

59. Legebiltzarren prerrogatibak. Parlamentuen autonomia erregelamendua egiteko, barneko gobernurako, aurrekontuetarako eta administrazio gaietarako. Egintza parlamentarioen gaineko kontrola.

60. Legebiltzarretako gobernu-organoak. Lehendakaritza. Mahaia. Eledunen Batzarra.

61. Legebiltzarretako organo funtzionalak. Osoko Bilkura eta batzordeak. Legegintzako batzordeak: egitura, osaera eta eginkizunak. Lege-gintzaz besteko batzorde iraunkorrak. Batzorde ez-iraunkorrak. Lan-taldeak.

62. Parlamentu-taldeak: izaera juridikoa. Era-tzea, aldatzea eta desegitea. Antolamendua. Lege-biltzarren egituraren eta funtzionamenduan dauzkan eraginak.

63. Nafarroako Parlamentua: gobernu-organo-ak eta funtzionamendu-organoak. Parlamentu-tal-deak eta foru parlamentarien elkarteak.

64. Askotariko taldeari eta transfugismoari buruzko arauen gaineko azterketa Espainiako legebiltzarretako erregelamenduetan. Haren ondo-rioak. Kideen izatea. Diputatuen eta senatarien elkarteak. Atxiki gabeko parlamentariak.

65. Nafarroako Parlamentuaren eraketa. Lege-gintzaldia eta bilkura-aldiak. Batzorde Iraunkorra.

66. Bilkurak eta bilkura motak Nafarroako Parla-mentuan. Egun baldiodunak. Deialdia. Gai zerren-da: prestaketa eta aldaketak. Quoruma.

67. Eztabaida Nafarroako Parlamentuan. Hitza izatea. Aipamenak. Diziplina parlamentarioa: a) Zehapenak, b) Gaiari lotzeko eta ordena gordetze-ko deiak, c) Ordena Parlamentuaren barruan. Parla-mentuko gizalegea. Botoa emateko sistemak eta hurrenkera. Gehiengoak eta berdinketak ebaztea.

68. Parlamentuaren legegintza-eginkizuna. Foru lege motak. Nafarroako Parlamentuaren lege-gintza-ekimena. Nafarroako Gobernuaren ekime-na: foru lege proiektuek bete beharreko baldintzak. Nafarroako Parlamentuaren ekimena: foru lege proposamenen baldintzak eta mugak; aintzat har-tzea. Foru lege proiektu eta proposamenak erreti-ratzea. Diputatuen Kongresuan lege proposame-nak aurkeztea.

69. Nafarroako Parlamentuaren legegintzako prozedura arrunta. Zuzenketak. Lan-taldearen txostena. Batzordeko eztabaida. Osoko Bilkurako eztabaida. Foru legeak aldarrikatzea eta argitara-tzea.

70. Nafarroako Parlamentuaren legegintzako prozedura bereziak. Nafarroako Parlamentuaren eginkizun finantzarioa. Nafarroako Aurrekontu Oro-korrei buruzko Foru Legea. Kontu Orokorrei buruz-ko Foru Legea. Irakurketa bakarraren bidez izapi-detzea. Eskuordetutako legegintza. Legegintzako foru dekretuak. Tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretuak. Foru Hobetzearen erreforma.

71. Kontrol eginkizuna. Konfiantza eskaera. Zentsura mozioa.

72. Kontrolerako berariazko tresnak Nafarroako Parlamentuan. Galderak. Jabeldurak. Ikerketa batzordeak.

73. Parlamentuetako erregelamenduetan aurreikusitako kontrol tresnak. Kontrolerako osoko bilkura bereziak. Gobernuaren lehendakariari galde-rak egitea. Osoko bilkura arruntetan denborak erreserbatzea kontrolerako ekimenetarako eta gobernuaren lehendakariaren agerraldietarako. Nafarroako Parlamentuko agerraldiak.

74. Nafarroako Parlamentuaren bultzatze eta zuzendaritza politikoko eginkizuna. Inbestidura. Mozioak. Politika orokorrari buruzko eztabaidak: Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida.

75. Foru parlamentariak informazio material dokumentatua lortzeko eskubidea eta horrekin zerikusia duten beste figura batzuk. Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua. Sor daitezkeen arazoak. Txosten eskariak.

76. Gobernuaren komunikazioak Nafarroako Parlamentuan izapidetzea. Programen eta planen azterketa. Beste erakunde batzuek igorritako txostenen izapidetzea.

77. Kargudunak hautatzea. Baimenak. Konstituziokontrakotasuneko errekursoak eta eskumengatazketan pertsonatzea. Konstituziokontrakotasuneko arazoak. Babes errekursoak.

78. Parlamentuaren eskumenak estatuarekiko eta beste autonomia erkidego batzuekiko lankidetzaren hitzarmen eta akordioetan. Beste erakundeetako harremanak. Nafarroako Parlamentua eta Europar Batasuna.

79. Parlamentuaren bilakaera: Parlamentua eta teknologia berriak.

80. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak: araubide juridikoa; sartzeta eta kargu-uztea; egoerak; eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak; diziplina-araubidea. Nafarroako Parlamentuko zerbitzuak.

3. multzoa

Zuzenbide Administratiboa, Lan Zuzenbidea, Zuzenbide Finantzarioa eta Zuzenbide Prozesala

Zuzenbide Administratiboa

81. Administrazio Publikoa Espainiako 1978ko Konstituzioan. Botere Exekutiboan betetzen duen tokia. Antolamenduko eta funtzionamenduko printzipio konstituzionalak.

82. Administrazio Publikoa eta Zuzenbidea. Legezketasunaren printzipioa. Araututako ahalmenak eta eskumeneko ahalmenak.

83. Administrazio Publikoa eta jurisdikzioa: Autotutoretzaren printzipioa.

84. Administrazio Publikoaren erregelamendu-ahalmena. Erregelamendua. Kontzeptua eta motak. Legearen eta erregelamenduaren arteko loturak. Erregelamendu-ahalmenaren mugak. Legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa juridikoa: bide penala eta administrazioarekiko auzien bidea eta salbuespen judiziala.

85. Pertsona juridiko publikoak. Espainiako antolamendu juridikoko ente publikoen tipologia. Ente publikoen gaitasuna.

86. Erlazio juridiko-administratiboa. Kontzeptua eta ezaugarriak. Erlazio juridiko-administratiboak sortzea, aldatzea eta azkentzea. Erlazio juridiko-administratiboaren elementuak.

87. Egoera juridiko subjektiboak Zuzenbide Administratiboan. Egoera aktiboak, ahalmena, eskubide subjektiboa eta interes legitimoa. Egoera pasiboak eta mistoak.

88. Administratua. Kontzeptua eta motak. Administrazioaren gaitasuna eta horren aldaketaren zioak. Herritarrek administrazio publikoetako harremanetan dituzten eskubideak. Herritarren parte-hartzea Administrazioan.

89. Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintzen motak. Administrazio-egintzaren elementuak.

90. Administrazio-prozedura. Kontzeptua eta izaera. Araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legea. Aplikazio esparrua eta printzipioak. Interesdunak. Baldintzak eta epeak.

91. Administrazio-prozedura: hasiera, antolaketak, instrukzioa eta amaiera. Administrazio prozeduren gaineko xedapen orokorrak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean.

92. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-egintza-prozedura bereziak: xedapen orokorrak prestatzeko prozedura. Ekintza zibilak eta lan ekintzak erabili aurreko erreklamazioak.

93. Administrazio egintzen eraginkortasuna. Baliozkotasunaren presuntzioa. Eraginkortasunerako baldintzak. Isiltasun administratiboa. Bete beharra eta etendura. Egintza administratiboak betetzea.

94. Egintza administratiboaren balio gabetasunaren teoria. Egintza deusezak eta deuseztagarriak. Egintza administratiboa baliozkoak. Ofiziozko berrikuspena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aipamen berezia.

95. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea I: aplikazio eremua eta arau orokorrak. Kontratistak. Administrazio publikoen kontratu guztietarako xedapenak. Esleipenaren aurreko jarduketak.

96. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea II: esleitzeko prozedurak eta irizpideak. Kontratazioaren kudeaketa hobetzeko sistemak. Publizitate arauak eta epeak. Esleipena, burutzea eta formalizazioa.

97. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea III: Kontratuak gauzatzea. Ordainketa eta prezioen berrikuspena. Kontratuen amaiera eta balio gabetasuna. Erreklamazioak eta beste kontrol-neurri batzuk.

98. Administrazio egintzaren formak. Sustapena eta bere baliabideak.

99. Mugapenaren jarduera administratiboa. Kontzeptuaren bilakaera. Haren printzipioak. Mugatzeko jardueraren adierazpideak.

100. Administrazioaren zehapen ahalmena. Printzipio orokorrak. Zehapen prozedura. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aipamen berezia.

101. Espainiarren eskubideen gaineko administrazio baldintzak. Herritarren Segurtasunari buruzko Lege Organikoa. Eskubideen etendura eta salbuespen egoerak.

102. Datu pertsonalen babesa Europan eta Espainian. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa.

103. Nahitaezko desjabetzea. Bilakaera historikoa. Kontzeptua. Izaera eta justifikazioa. Elementuak: subjektuak, objektua, kausa eta edukia.

104. Desjabetzeko prozedura. Prozedura berezietan buruzko aipamena. Partikularren bermeak.

105. Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa eta prestazio administratiboak. Interes orokorreko zerbitzuak.

106. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak. Zuzeneko kudeaketa. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua. Enpresa publikoak eta enpresa mistoak.

107. Jabari publikoa. Kontzeptua eta izaera. Elementuak. Araubide juridikoa.

108. Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizuna. Bilakaera eta gaur egungo araubidea. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aipamen berezia.

109. Errekurtso administratiboak. Gora jotzeko errekurtsoa eta berraztertzeko errekurtsoa. Berrikusteko aparteko errekurtsoa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aipamen berezia.

Lan Zuzenbidea eta Gizarte Segurantzza

110. Lan Zuzenbidea. Izaera eta ezaugarriak. Lan harremana arautzen duten oinarriko printzipioak.

111. Lan Zuzenbidearen iturriak. Langileen Estatutua. Lan hitzarmen kolektiboak.

112. Lan-kontratua: kontzeptua, izaera eta motak. Lan kontratazioa administrazio publikoetan.

113. Lan-kontratua etetea eta amaitzea: arrazoiak. Kaleratzea.

114. Gizarte Segurantzza. Arau orokorrak eta aplikazio esparrua. Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak, zerbitzu komunak, entitate laguntzaileak eta erakunde autonomoak.

115. Gizarte Segurantzaren araubide orokorra. Aplikazio esparrua. Afiliazioa eta kotizazioa. Babes jarduna: babesten diren egoerak eta prestazioen araubidea.

Finantza eta Tributu Zuzenbidea

116. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Printzipio orokorrak. Edukia, prestatzea eta onespina. Kredituak eta haien aldaketak. Aurrekontuen exekuzioa eta likidazioa. Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu-kontrola eta kontrol finantzarioa.

117. Gastu publikoa: gaiari buruzko printzipio konstituzionalak. Diru-sarrera publikoak: sailkapena. Zor publikoa: kontzeptua, motak eta araubide juridikoa.

118. Nafarroako Foru Komunitateko tributuen antolamendua. Printzipio orokorrak. Tributu arauak: printzipio orokorrak eta aplikazioa. Tributuak: motak eta osagaiak (zergapeko egitatea, tributudunak, zerga-oinarria eta tributu-zorra).

119. Tributuen kudeaketa Nafarroan: Xedapen orokorrak: Tributudunari informazioa eta laguntza ematea. Tributuak kudeatzeko prozedura. Tributuen likidazioak. Diru-bilketa. Tributuen gaineko ikuskapena. Egintzen berrikuspena bide administratiboa. Tributu arloko arau-hauste eta zehapenak. Delitu fiskala.

Zuzenbide Prozesala

120. Prozesua: Izaera eta oinarriak. Konstituzioak jasotzen dituen printzipio prozesalak. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea: Konstituzioaren 24. artikulua eta bere garapena Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian.

121. Botere Judizialaren Lege Organikoa. Jurisdikzioaren esparrua eta mugak. Banaketa eta lurralde antolamendua. Gatazkak eta eskumen arazoak. Jurisdikzio organoen osaera. Karrera judiziala. Ministerio Fiskala.

122. Prozesu zibileko eta zigor prozesuko oinarriko araubide juridikoa. Prozedura Zibilaren Legea eta Prozedura Kriminalaren Legea. Haien edukiaren azalpen laburra.

123. Administrazioarekiko auzia. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legea.

Jurisdikzio horren izaera, hedadura eta mugak. Administrazio Publikoaren kontzeptua ondorio horietarako. Jurisdikzio horren ardurapeko gaiak eta arduraz kanpokoak. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoak.

124. Aldeak: ahalmena eta legitimazioa; aldean ordezkartza eta defentsa. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea. Aurkatzeko moduko jarduera administratiboa. Aldeen eskaerak. Pilaketa. Errekurtsoaren zenbatekoa.

125. Administrazioarekiko auzien prozedura (I). Epeak Zuhurtasunezko neurriak. Lehen auzialdiko edo auzialdi bakarreko auzia: Atariko eginbideak; kaltegarritzat deklaratzeko. Errekurtsoa aurkeztea. Errekurtsoa iragartzea eta espedientearen errekurtsoa. Epatzea eta pertsonatzea.

126. Administrazioarekiko auzien prozedura (II). Demanda eta erantzuna. Agiriak aurkeztea. Administrazio espedientearen osatzeko izapidea. Aldez aurreko alegazioak. Froga. Bista eta ondorioak: gai berrien planteamendua. Epaia: Edukia. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk. Auzien kostuak.

127. Probidentzien eta autoen aurkako errekurtsoak. Apelazioko errekurtsoa. Kasazioko errekurtsoa. Zein erabakiren aurka jotzen duten eta errekurtsoaren zioak. Prozedura. Epaia: edukia eta ondorioak.

128. Doktrina batzeko eta legearen intereseko kasazio errekurtsoak. Berrikusteko errekurtsoa. Epaia: betearaztea: haien etendura eta ez bete-araztea; ondorioen hedadura. Egintza prozesaleko gorabeherak eta balio gabetasuna.

4. multzoa

Nafarroako Zuzenbide Publikoa

129. Nafarroaren foru araubidea. Bilakaera (1512-1982): Nafarroa, erresuma izatetik foru komunitatea izatera. Foruen legeak, bereziki 1841eko Lege Itundua.

130. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Prestakuntza prozesua. Izaera eta esanahia. Atariko titulua. Erreforma.

131. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Aurrekari historikoak. Egungo egituratzea. Antolamendua. Eginkizunak.

132. Nafarroako Justizia Administrazioa. Antolaketa. Nafarroako Auzitegi Nagusia. Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin dituen harremanak.

133. Nafarroako Comptos Ganbera. Antolamendua eta eskumenak. Erresumako Kontuen Auzitegiarekin dituen harremanak.

134. Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria. Elaborazioa eta erreformatzeko prozedura. Nafarroako Zuzenbide Zibilaren iturriak. Foru izaera zibila.

135. Euskara Nafarroako Foru Komunitatean. Euskararen Foru Legea eta haren erregelamenduzko garapena. Euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan.

136. Hitzarmen ekonomikoaren araubidea. Hitzarmen ekonomikoak: Historia eta izaera juridikoa. Nafarroako zerga autonomiaren printzipioak. Egun Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean dagoen hitzarmen ekonomikoa.

137. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa. Sorrera eta justifikazioa. Erakundearen izaera. Hautatzea, kargu-uztea eta ordezkatzeko. Prerrogatibak eta bateraezintasunak. Eskumenak. Erakundearen funtzionamendua. Parlamentuarekin eta Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekin dituen harremanak.

138. Nafarroako Ogasun Publikoa. Araubide juridikoa. Eskubideak eta betebeharrak. Kontrola: kontu-hartzailetza eta kontrol finantzarioa. Erantzukizunen araubidea.

139. Nafarroako ondarea. Kontzeptua eta sailkapena. Ondarea kudeatzeko printzipioak. Eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Ondarea babestu eta defendatzea. Afektazioa, aldaketa demaniala eta atxikipena. Jabari publikoa. Jabari pribatua. Enpresen ondare publikoa.

140. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta erakunde autonomoen diru-laguntzei buruzko araubide orokorra.

141. Nafarroaren eskumenak. Haien ordenamendua Foru Hobetzean: sailkapena eta printzipioak. Transferentzien Batzarra.

142. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza. Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak. Lurraldearen eta Hirigintzaren Antolamenduari buruzko Foru Legearen aipamena bereziki.

143. Ingurumenaren babes. Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak. Nafarroako Foru Komunitateko lege-xedapen nagusien aipamena eta haien berritasun nagusien deskribapena.

144. Etxebizitzaren babes publikoa Nafarroan: babesaren kontzeptua, esparrua eta deskribapena, babes jardura motak. Babes ofizialeko etxebizitzaren araubide juridikoa.

145. Osasunari buruzko Foru Legea eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenak.

146. Nafarroako errepideen araubide juridikoa. Nafarroako Errepideei buruzko Foru Legea: edukiaren azterketa.

147. Nafarroako eskumenak nekazaritza eta abeltzaintza arloetan. Nafarroako Nekazaritza Ustategien Erregistroa. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Foru Legea: edukiaren azterketa.

148. Mendiak Nafarroan: Foru Komunitatearen eskumenak. Nafarroako Oihan Ondarea Babesteari eta Garatzeari buruzko Foru Legea: edukiaren azterketa.

149. Nafarroaren eskumenak segurtasun publikoaren arloan. Foruzaingoa: historia, araudia, eginkizunak, antolaketa eta langileak. Segurtasun Batzordea. Nafarroako udaltzaingoak: araudia, eginkizunak, antolaketa eta koordinazioa.

150. Funtzio Publikoa. Printzipio konstituzionalak. Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan duen eskumen historikoa. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua. Ezaugarriak, aplikazio esparrua eta salbuespenak. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza eta osasun arloetako langileei buruzko aipamena.

151. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan langileak sartzeko bidea. Lanpostuak betetzea. Eskubide eta betebeharrak nagusiak: ordainsariak, bateraezintasunak eta administrazio karrera. Egoera administratiboak.

152. Nafarroako toki entitateak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak toki administrazioari dagokionez. Udalak. Kontzejuak. Mankomunitateak eta beste toki entitate batzuk. Antolaketa, funtzionamendua eta haien eskumenen sailkapena.

153. Nafarroako toki entitateen ondasunak. Herri ondasunak eta ondarekoak.

154. Nafarroako toki entitateen jarduketan prozedura eta araubide juridikoa. Toki entitateen jarduketan inpugnazioa eta kontrola. Nafarroako Administrazio Auzitegia.

155. Nafarroako Toki Ogasunen baliabideak. Udal zergak. Toki entitateen parte-hartzea Nafarroako zergetan.

156. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legea. Turismoari buruzko foru araudi nagusia.

157. Gizarte zerbitzuei buruzko foru legeak. Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari,

laguntzari eta babesari buruzko Foru Legea: edukiaren deskribapen orokorra.

158. Merkataritzaren arloko foru araudia. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes orokorra Nafarroan.

159. 11/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzekoa.

160. 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzkoa.

161. Nafarroako Gobernua. Osaera, izendapena, eraketa eta kargu-uztea. Atribuzioak eta eskumenak. Funtzionamendua. Laguntza organoak. Erantzukizun politikoa, Parlamentuaren kontrola eta Parlamentuaren desegitea.

162. Nafarroako Gobernuko lehendakaria Hautapena, izendapena, ordezkapena, kargu-uztea eta aldaketa. Atribuzioak.

163. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritako printzipio orokorrak. Herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak. Foru Administrazioaren antolaketa: printzipio orokorrak eta egitura organikoa, kide anitzeko organoak eta administrazio organoen eskumenak.

164. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste administrazio publiko batzuekin daukan harremanak. Printzipio orokorrak. Administrazioen arteko elkarlana, lankidetzak eta koordinazioa. Sektorekako konferentziak eta bestelako lankidetzak organoak. Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean duen delegatua. Lankidetzak hitzarmenak eta baterako plan eta programak. Nafarroako araudiari buruzko aipamen berezia.

165. Administrazio korporatiboa Nafarroan. Lanbide elkargoak eta ganbera ofizialak: eskumenak eta araubide juridikoa.

166. Erakunde Administrazioa. Erakunde autonomoak. Enpresa-entitate publikoak. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak.

167. Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaileak. Izaera, motak, ezaugarriak eta eginkizunak. Nafarroako Kontseilua: osaera, antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua. Legeen bidez sorturiko beste organo aholku-emaile batzuk.

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean protokolo teknikari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdia

Gainditu duten izangaien zerrenda

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean protokolo teknikari lanerako prestatu eta trebatzeko hautapen probak egiteko deialdiaren 6. oinarrian xedatutakoa betez, proba guztiak eginak eta kalifikatuak, gainditu dutenen zerrenda ematen da argitara.

Hona gainditu dutenen zerrenda:

– Iñaki Miguéliz Garcés

Iruñean, 2010eko maiatzaren 14an

Epaimahaiaren lehendakaria: Silvia Doménech Alegre

